

**GUTXI HITZ EGIN DUGU MAITASUNAZ**  
**3 kanta ilunpean**

**Arrotz perfektua**

Berriz ere itzali naiz,  
pauso laster txiki hori,  
nire gaitzekin prest,  
tuneletan burua,  
zer dakit nik,  
bizirik irteten banaiz,  
ez naizela sekula  
zugandik joango.  
Bai, hori da dena.  
Dena onerako orain,  
orain gogaikarri,  
lur hotza eta izuaren izerdia,  
zeren eta mundua, mundua,  
ihesbiderik gabeko mundua,  
ez naiz hori baino gehiago.  
Ezereztu egin nauzu,

eta zein azkar, zein lasai.  
Entretenitu egiten naiz  
heriotzaren ohituraz,  
apal eta harrokeriak  
ezinezko arrazoen artean,  
ohearen bizkar makurtua.  
Ezereztu egin nauzu,  
eta zein azkar, zein lasai.  
Ez naiz nire denboraz oroitzen,  
ez dakit noiz sortu nintzen,  
amodioa den ala gorrotoa,  
ez bata, ez bestea,  
zer egingo eta sinetsi,  
nor eta ni areto handien ertzean.

## **Ez neguan ezin**

Zuk, aldiz, maite,  
zuk badaukazu zure  
bidearen akabera,  
hilobian lore bat,  
nire festetako begien  
erantzuna.

Nik, nik ezin dut,  
zuk bai, maite,  
zu ongi irten zara  
sekretu hilgarri horietatik,  
bazter utzi duzu  
infinitu osatugabea,  
beste guztia.

Pentsa ezazu.  
Gauza zara aipatu gabe  
bizitzaren mugan galtzeko,  
samin bera agertzeko  
zelai hil zurietan.

Ni ez, ni ekaitz  
ikaragarria naiz,  
ni zinez naiz une egokia,  
non gertatu den  
ez dakidala.

Ez neguan ezin.  
Ez udaberrian ezin.  
Ez dakizu ongi.

## **Ez, gaur ja ez**

Ez ditut hitzak neurtuko,  
ez, gaur ja ez,  
behartu egin nauzu,  
barka iezadazu,  
arriskua txarra da pentsatzeko.  
Begira, zure atsedenaldia  
naiz gaur gauean,  
basoen aniztasuna,  
kontrako egien bakea.  
Ez, gaur ja ez,  
ez dut hitzik neurtuko.  
Isil-isilik iluntasunean  
apoteosirako edan dezagun,  
gonbidatuta zaude,  
baduzu zertan poztu  
inongo lekuen artean,  
ez aurrera begiratu,  
ezin salbatuko dugu berriz  
eskari beltzen Jainkoa.  
Ez, gaur ja ez.  
Gaur gehiagorako gogorik ez dut.  
Baina segi, hala egin behar dugu.  
Arnasarik gabe. Izar hotzak bezala.

*José Luis Padrón*